

Azpeitian zer?

Udal aldizkaria

**Zerbitzu oso bat,
indarkeria matxistari
aurre egiteko**



Telefono interesgarriak

Zentralita	943 15 72 00
Hirigintza	943 15 71 91
Gizarte Zerbitzuak	943 15 71 92
Kultura	943 15 70 68
Kirolak	943 15 00 95
Hezkuntza	943 25 50 06
Parekidetasuna	943 15 79 28
Emakumeen Txokoa	943 15 70 55
Iturritxiki Ludoteka	943 15 11 79
Txiki-Txoko Ludoteka	943 15 05 16
Gazte Informazio Bulegoa (GIB)	943 15 71 60
Gaztelekua	943 15 71 61
Eguneko Zentroa	943 15 74 96
Liburutegia	943 15 71 95
Udaltzainak	943 15 13 13
Igerilekua	943 81 41 21
Kiroldegia	943 81 30 69
Udal Euskaltegia	943 81 19 47

Haurren eta nerabeen kontrako sexu
indarkeriak salatzeke telefonoa:
688 758 299



Ale honetan zer?

Hiru udal sail, bat eginda3

Ate bat jotzea aski, beste guztiak zabaltzeko4

Azpeititik kanpo bizi arren, zure etxean jaso dezakezu
Azpeitian Zer? aldizkari hau posta bidez. Egin eskaria
943 15 71 85 (Alkatetza) telefonon.

Argitaratzailea: Azpeitiko Udala · Egilea: Prentsa bulegoa
Argazkiak: Azpeitiko Udala · Diseinua: Sorland
Maketazioa: Sorland
Ale kopurua: 7.000 · L.G: SS - 1148/91

Herritarren Arreta Zerbitzua



Azpeitiko Udaleko lehen solairuan aurkitzen da Herritarren Arreta Zerbitzua. Dokumentuak erregistratu, errolda agiriak atera, eskaera orokorrak eta lizentzia eskaerak aurkeztu edo kontsultak egin ditzakezu bertan. Neguko ordutegian, astelehenetik ostiralera, 07:30etik 14:30era izaten da zabalik, ostegunetan salbu. Egun horretan, 07:30etik 19:00etara, etenik gabe eskaintzen zaie zerbitzua herritarrei.



Hiru udal sail, bat eginda

Igaro berri da Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Eguna, eta aurten ere kalera atera dira herritarrek, indarkeria matxistari eusten dioten askotariko egitura eta mekanismoak salatzeko. Azpeitiko Udalak, azken urtean, indarkeria matxista jasan duten 40 kasuren berri izan du (udal zerbitzuetan eta Goierri-Urola Garaia ESlan jasotako datuak dira).

Datu horiek agerian jartzen dute, besteak beste, ezinbestekoa dela indarkeria matxistari aurre egiteko udal politiketan sakontzen jarraitzea. Horri lotuta, Azpeitiko Udalak Iparrizar zerbitzua aurkeztu berri du.

Indarkeria matxistari aurre egiteko zerbitzu integral eta konfidentziala da Iparrizar.

Iparra markatzen duen izarra da iparrizarra, eta horixe lortu nahi du zerbitzu berriak ere: indarkeria jasan duten pertsonen erritmoak, mugak eta

beharrak errespetatuz, bidea markatzen eta iparra argitzen laguntzea.

Begi-bista batera, izar bakarra dirudi iparrizarrak, baina gutxienez hiru izarrek osatutako sistema anizkoitza da. Iparrizar zerbitzuak ere zerbitzu bakar bat bezala funtzionatzen du, baina hiru zerbitzuek osatzen dute haren muina: Gizarte Zerbitzuek, Udaltzaingoak eta Emakumeen Txokoak, nahiz eta beste udal zerbitzu batzuek ere parte hartzen duten zenbait lanketatan.

Labur-labur azalduta, Iparrizar zerbitzuan, erdigunean kokatzen dira indarkeria matxistari aurre egiten ari direnen beharrak eta ongizatea, birbiktimizazioa saihestuz eta arreta eraginkorra zein erreparatzailea bermatuz.

**Azpeitiko Udalak indarkeria
matxista jasan duten 40 kasuren
berri izan du azken urtean**

Ate bat jotzea aski, beste guztiak zabaltzeko



Iparrizar zerbitzua aurkeztu du Azpeitiko Udalak, indarkeria matxistari aurre egiteko zerbitzu berritzailea.

Gizarte Zerbitzuen, Udaltzaingoaren eta Emakumeen Txokoaren artean sortu dute, eta indarkeria matxistari aurre egiten ari direnen beharrak eta ongizatea jartzen ditu erdigunean, birbiktimizazioa saihestuz eta arreta eraginkorra eta erreparatzailea bermatuz.

ZER DA IPARRIZAR?

Indarkeria matxistari aurre egiteko zerbitzu integral eta konfidentziala.

ZEINENTZAT DA ZERBITZUA?

Azpeitian bizi diren eta indarkeria matxista jasaten ari diren edo iraganean jasan duten emakumeentzat eta LGTBIQ+ kolektiboko pertsonentzat.

ZERTARAKO SORTU DA?

Indarkeria matxista kasuei erantzun eraginkorragoa eta koordinatuagoa emateko. Kontuan hartu behar da, gainera, azken urteetan ugaritu egin direla detektatutako indarkeria matxista kasuak Azpeitian.

ZEIN DIRA ZERBITZUAREN EZAUGARRIAK?

Diziplinarteko talde profesional batek eskaintzen du zerbitzua, emakumearen beharretan eta ongizatean oinarrituz, birbiktimizazioa saihestuz eta arreta eraginkorra eta erreparatzailea eskainiz.

Hainbat diziplinatako profesionalek osatzen dute Iparrizar zerbitzuko lantaldea

ZER ESAN NAHI DU EZAUGARRI HORIETAKO BAKOITZAK; ADIBIDEZ, DIZIPLINARTEKO TALDE PROFESIONAL BAT EGOTEAK?

Nagusiki, udaleko hiru sailek hartzen dute parte indarkeria matxista kasuetan: Gizarte Zerbitzuek, Udaltzaingoak eta Emakumeen Txokoak (Parekidetasun Saila). Sail bakoitzak bere profesionalak ditu, eta bakoitza bere eremuan espezializatuta dago. Sailen arteko lankidetzak aurrez ere egon izan da, baina, iaz, barne prozesu bat egin zuen udalak, indarkeria matxistaren arloan zer eskaintzen zuen aztertzeko. Barne prozesu horretan ikusi zen bazeudela aldeko faktore batzuk, eta, apustu bat eginez, bazegoela zerbitzu berri bat sortzeko aukera: doakoa, herrian bertan, konfidentziala, feminista eta erreparatzailea. Horren fruitua da Iparrizar.

ALDEKO ZER FAKTORE ZEUDEN?

Adibidez, Azpeitiko Udaltzaingoak Babesa zerbitzua du, Gipuzkoako beste herriek ez dutena,

Udalak egindako barne prozesu baten emaitza da Iparrizar

eta udaltzain espezializatu bat dago indarkeria matxistaren biktimak artatzeko; salaketak ere Udaltzaingoak berak har ditzake, Ertzaintzara jo beharrik gabe. Gizarte Zerbitzuetan, kasuen detekzio goiztiarrerako, laguntza ekonomikoak kudeatzeko, sentsibilizaziorako nahiz beste zerbitzu publiko batzuekin koordinatzeko baliabideak izateaz gain, Azpeitian, ongizate emozionala lantzeko psikologo bat ere badago. Emakumeen Txokoak, berriz, 15 urtetik gorako ibilbidea du, eta indarkeria matxistaren artarako zenbait zerbitzu espezifiko eskaintzen ditu, hala nola aholkularitza juridikoa eta psikologikoa, indarkeria matxistaren biktimen taldea...



Ate bat jotzea aski, beste guztiak zabaltzeko

HIRU SAIL HORIEN ARTEKO KOORDINAZIOA HOBETZEN DUEN ZERBITZU BAT DA, BERAZ, IPARRIZAR?

Bai, baina ez da koordinazioa hobetzera mugatzen. Iparrizar zerbitzuari esker, pertsona bakoitza eroso-en sentitzen den edo hurbilen duen espaziora joan daiteke, eta joaten den tokira joaten dela ere, eskura izango ditu udalaren baliabide guztiak, sail bakoitze-ko profesional espezializatuek etengabeko koordinazioan lan egiten dutelako. Laburbilduz, ate bakar bat jo, eta udalaren gainerako ate guztiak irekitzen dituen zerbitzua da Iparrizar. Noski, erabil-tzaileak horretarako baimena ematen badu.

ZER BALIABIDE JARTZEN DITU IPARRIZARREK EMAKUMEEN ETA LGTBIQ+ PERTSONEN ESKURA?

Salaketa jartzeko aukera; aholkularitza psikologikoa; laguntza ekonomikoak; bidelaguntza; aholkularitza juridikoa; sexualitate, genero eta bikote aholkularitza; eta lanketa kolektiborako aukera. Baliabide horiek daude, baina ez du esan nahi denak automatikoki aktibatzen direnik, pertsona bakoitzaren beharrak eta nahiak hartzen dira kontuan.

Pertsona batek bere kasua behin eta berriz kontatu beharrik ez izatea bermatu nahi da

ETA ZER ESAN NAHI DU BIRBIKTIMIZAZIOA SAIHESTEAK?

Indarkeria matxista jasaten ari den pertsona batentzat ez da batere erraza laguntza eskatzea, alegia, lehen pauso hori ematea. Iparrizarren bidez, pertsona horrek bere kasua behin eta berriz eta profesional ezberdinei kontatu beharrik ez izatea bermatu nahi da.

ADIBIDEZ, NOLA?

Demagun emakume batek edo LGTBIQ+ pertsona batek Emakumeen Txokora jo duela tratatu txarrak jasaten dituelako, salaketa jarri nahi duela eta dirulaguntzei buruzko informazioa behar duela. Iparrizar zerbitzuari esker, ez dauka bere kasua



Gizarte Zerbitzuetan, Udaltzaingoan eta Emakumeen Txokoa kontaktatu beharrik, emakumearen baimena izanez gero, zuzenean aktibatuko delako zerbitzuko lantaldea, eta informazio trukea egongo delako profesionalen artean. Hala, Emakumeen Txokoa arreta eskaini dion profesionalak lotuko dizkio bestelako hitzorduak ere, eta behar izanez gero, Gizarte Zerbitzuetara eta Udaltzaingora ere lagunduko dio; edo beste bi zerbitzu horietako profesionalak beraiek joango dira Emakumeen Txokora.

Gauza bera lehen arreta Gizarte Zerbitzuetan edo Udaltzaingoan ematen bazaio ere.

ETA ZER ESAN NAHI DU ARRETA ERAGINKORRA ETA ERREPARATZAILEA IZATEAK?

Emakumea zerbitzura sartzen den une beretik, emakumearen denborak, espazioak eta nahiak zainitzen dira uneoro. Arreta goxoa egitea lehenesten da, konfidentziala, gertukoa eta koordinatua. Izan ere, erreparatze eta osatze prozesuak oso luzeak izan daitezke, eta beharrak asko aldatzen dira unearen arabera: laguntza eskatzeko unean, salaketa jartzerakoan, prozesu judizialak iraun bitartean eta ondorenean... Iparrizarren, garrantzi berezia ematen zaio arlo emozionalari.

BEHARREZKOA AL DA ERASOTZAILEAREN AURKAKO SALAKETA JARTZEA IPARRIZAR ZERBITZUAREN ERABILTZAILE IZATEKO?

Ez, Iparrizar zerbitzura jotzeko ez da beharrezko aurrez salaketa jartzea, eta zerbitzuaren erabiltzaile izateak ere ez du esan nahi gerora salaketa jarri beharko duenik pertsona horrek. Hori norberaren erabakia da.

DAGOENKO MARTXAN AL DAGO IPARRIZAR ZERBITZUA?

Bai, udalak orain aurkeztu du, baina urtariletik dago martxan. Lehen hilabete hauetan ikusi da zerbitzuak balio duela indarkeria matxistaren biktimei arreta eraginkorragoa emateko.

NON LOR DAITEKE INFORMAZIO GEHIAGO?

Non lor daiteke informazio gehiago?

Gizarte Zerbitzuetara (943157192), Emakumeen Txokora (688751000) edo Udaltzaingora (092) deituta.



Indarkeria matxistari aurre egiten ari direnei eskaintzen zaizkien zerbitzuak:

- Salaketa jartzeko aukera
- Bidelaguntza feminista
- Aholkularitza psikologikoa
- Aholkularitza juridikoa
- Laguntza ekonomikoa
- Sexualitate, genero eta bikote aholkularitza
- Lanketa kolektiboak
- ...

Iparrizar zerbitzuaren erabiltzaile izateko, ez da beharrezkoa salaketa jartzea



Energia Bulegoa

943 11 98 06

energia@azpeitia.eus

Ordutegia:

Astelehen, astearte, asteazken
eta ostiraletan, 10:00etatik
14:30era. Ostegunetan,
17:00etatik 19:30era.

www.azpeitia.eus